

EROSKI-EUSKALTZAINDIA:  
*JAGONET*



**JAGONETE-n AURKEZPENA ETA EROSKI ETA  
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA**

Bilbo, 2000-XI-30

*Begoña Larrañaga,  
EROSKI-ko harreman Publikoetarako arduraduna*

Eguerdion, guztioi.

EROSKI Fundazioak ere bere aletxoa jarri nahi izan du Euskaltzaindiak gaur aurkezten duen ekimen honetan. Dirulaguntza bat eman dugu JAGONET erabiliz Euskaltzaindiak, modu arin eta egokian erantzun diezaien egunero jasotzen dituen galdera eta eskakizunei.

EROSKI Fundazioak, bere estatutuen aginduei jarraituz, denbora luzea darama lanean euskararen normalizazioaren alde: hiru liburuki argitaratu ditugu, *Banaketa eta Kontsumo hiztegia*, *Consumer* produktuetan, 3.000 baino gehiago, euskara erabiltzen dugu Estatuko beste hiru hizkuntza ofizialekin batera. Konpromisoa hartu dugu, euskararekiko Konpromisoa hartu dugu Euskararen Kontseiluarekin euskara enpresa barruan zabaltzeko eta abar.

Hauek dira, besteak beste, gure aletxoak euskararen alde. Badakigu, hala ere, epe luzeko lana izango dela, baina gu prest gaude elkarlanean aritzeko.

Euskaltzaindiak JAGONETen egitasmoaren berri eman zigunean, bere-hala ulertu genuen era horretako tresnek duten garrantzia gizarte aldakor honetan. Eta gure uste apalean, JAGONET, hizkuntza bateratzeko, zabaltzeko eta zaintzeko bidea izan behar da. Baita, bere txikian, gure gizartea hezurmamitzen lagunduko duen tresna bat ere.

EROSKI Fundazioan sinestuta gaude, elkarlanean aritz gero, asmoz eta jakitez, aurrera aterako dugula euskara.

Horixe izango da gure ondorengoei utziko diegun altxorrik onenetarikoa.

Hala izan dadila eta mila esker guztioi.



## **JAGONETEZ EUSKALTZAINDIAREN ETA EROSKI-ren ARTEKO HITZARMENA**

2000.eko azaroaren 30ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, alde batetik, Henrike Knörr Borràs euskaltzainburuordeak, Euskaltzaindiaren izanean, eta, bestetik, Begoña Larrañaga Ansolak, Harreman Publikoen arduradunak, EROSKI Kooperatibaren izanean, honako hau azaltzen dute:

1. Euskaltzaindia euskararekiko erakunde ofiziala dela, hala aitortzen dutelarik bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafar Gobernuak, baita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek eta orobat Espainiako Gobernuak, euskara ikerkuntza eta jagote esparruetan bultzatzeko.

2. EROSKI Kooperatiba elkartea interes duela Euskaltzaindiaren Jagon Sailak prestaturiko JAGONET egitasmoaren babesean parte hartzeko, hikuntzaren normalizazioan aurrera egiteko.

3. JAGONET Euskaltzaindiak bere hizkuntza arau, irizpen eta aholkuak oro har, *on-line* zerbitzu gisa kudeatzeko sortu duen egitasmoa dela.

4. Bi erakundeen asmoa dela lankidetza hitzarmen bat izenpetzea, egitasmo honetan bakoitzaren baliabideen ustiaketa ahalik hobekien burutzeko.

Adierazitako guztiaren arabera honako hau adierazten da:

1. Euskaltzaindiak bere JAGONET egitasmoa abian jarriko duela gaurtik aurrera, horretarako, aurretiaz, urte honetan zehar prestaketa guztiak egin dituelarik.

2. EROSKIk 3.000.000 pta.ko dirulaguntza emango duela, hiru urtetan ordaintzeko, 2000. urtean, 1.000.000 bat; 2001. urtean beste 1.000.000 bat eta 2002an beste 1.000.000 bat.

3. Ordainketa hori JAGONET egitasmoaren WEB-gunean EROSKIren logotipoa *panner* gisa txertatzeagatik izango dela.

4. Ordezkarri bana izendatuko da *hitzarmenaren* xehetasunen jarraipenerako, bidebatez, sor daitezkeen arazoak bideratu ahal izateko.

*Hitzarmen* honen testua irakurri ondoren eta behean aipatzen diren ordezkarriak ados egonik, berau sinatzen dute, bi aletan, hasieran adierazitako leku eta datan.



## **JAGONETen AURKEZPENA**

*Bilbo, 2000-XI-30  
Henrike Knörr*

Jaun-andreak, adiskideak!

Seguru aski, gehiegi erabiltzen da *egun historikoa* deitura, garaiz eta desgaraiz etortzen baitzaie askori ezpainetara. Baino nik esango nuke egun historikoa dela hau, neurri handi batean. Hots, gaur ospatzen dugu –bai, ospatzen, zergatik ez?– Euskaltzaindiaren zerbitzu berria, *Jagonet* bataiatu dena, irekitzea.

Gauza jakina da euskara ari dela azken urte hauetan teknologia berriean sartzen. Gure Akademia ezin zitekeen bide honetatik landa geldi; aitzitik, aspaldixko jardun dugu nahitezko langintza horretan.

Orok dakite, halaber, Euskaltzaindiak badituela bi Sail: **Jagon** Saila eta **Iker** Saila. *Jagon* horretaz zer esan nahi den garbi dago. Schuchardt handiak, ongi oroitzeten banaiz, arrazoia zuen, esan zuenean *jagon* aditzak *eragon* forma duela iturburu. Beraz, *jagon* esaten dugunean, euskara eragotea, etorkizunari begira irautea eta gordetzea esan nahi dugu. Eta gure hizkuntza biziko bada, teknologia berri horietan txertatu beharra da.

Zer esanik ez, jende asko dago teknologia berri horien aurrean, harrimenez eta agurmenez, eta normala da, benetan, mirariak ikusten ditugu. Baino funtsean makineria hori eta teknologia hori lanabesak dira, eta lanabesak zorrotzak edo kamutsak izan daitezke. Gure asmoa, zer esanik ez, lanabes hau zorrotza izatea da. Ordenagailuaren aurrean jarriko denak behar du, jakina, izan prestamena eta argitasuna. Hemen ere esan daiteke perpaus hora, baina pixka bat aldatuaz: *Quod natura non dat, technica non praestat*, edo horrelako zerbait.

Labur, bada, *Jagonetez* Euskaltzaindiak zerbitzua eskaini nahi die euskaldunei, zeinahi den ere bakoitzaren lanbidea. Ezen askotan pentsatzen dugu irakasleentzat, idazleentzako, eta ez besterentzat ari garela. Nabari da hori ez dela horrela. Euskara hedatua dago gizartearen alor guztietara eta, beraz, edozeinek behar ditu zerbitzu hauek.

Berehala ikusiko duzuen lagin honen atzean badago jende asko, eta orain ez naiz hasiko arduradunen zerrenda egiten, zeren zerrendak egiten direnean hutsak gertatzen baitira. Hemen dugu Iñaki Kareaga jauna, informatikaria, eta hark azalduko du xehekiago hau guztia.

Bukatu baino lehen, ordea, neure esker ona agertu nahi diot Eroskiri, Euskaltzaindiaren izenean. Haste-hastetik abegirik onena egin dio egitasmo honi eta guztiz pozik gaude elkarlan honengatik.

Señoras y señores,

Dos palabras para presentar el proyecto *Jagonet*, o quizá mejor dicho, para presentar a los presentadores. He dicho que muchas veces se abusa del concepto de *día histórico*, pero yo estaría tentado en decir que hoy es ciertamente un día histórico. En efecto, porque el euskara hace tiempo que está entrando en las nuevas tecnologías, pero éste es el día en que se presenta la red *Jagonet*, que trata de ofrecer un servicio a todos los euskaldunes, cualesquiera que sean sus profesiones. En efecto, para mucha gente que tiene la tendencia a pensar que lo que hoy presentamos sería solamente para quienes enseñan la lengua o escriben en ella. Eso no es verdad. Hoy nuestra lengua está presente en todos los sectores de la sociedad y *Jagonet* quiere llegar a todos esos sectores.

Es evidente, por otro lado, que en la creación de *Jagonet* ha habido muchas personas. No voy a hacer la lista, porque cuando se hacen listas el peligro es que haya muchos vacíos. El señor Kareaga, nuestro técnico informático, dará las explicaciones correspondientes, lo mismo que la directora de la Sección *Tutelar*, Miren Azkarate, aquí presente.

Quisiera aprovechar la oportunidad para decir una cosa más. No hace mucho leímos un lamentable artículo en un periódico vascófono. El autor decía que Euskaltzaindia era *Euskaltzantza*, jugando con la palabra *Ertzantza*. Naturalmente, el papel todo lo aguanta y también aguantó esa tontería.

Es sabido que la Academia desea abrir estos caminos para ofrecer el corpus, es decir, todos los textos escogidos de los mejores escritores vascos, los acuerdos que ha tomado, los dictámenes que emite, el Diccionario Unificado, etc. De modo que Euskaltzaindia, que no tiene seguramente las pelucas de las otras Academias, desea, en la medida de sus posibilidades, ofrecer estos servicios modernos, siempre en beneficio del País y de la lengua.

No quisiera dejar de saludar a la representación de la República de Armenia, que está aquí con nosotros, con un *cicerone* inmejorable, como es Vahan Sarkisian, conocido vascólogo. Les deseo en nombre de Euskaltzaindia una feliz estancia entre nosotros.

Y antes de terminar estas breves palabras, quisiera expresar el profundo agradecimiento de Euskaltzaindia a Eroski, que ampara este proyecto. Sin las ayudas de las instituciones públicas, de un lado, pero también sin el patrocinio del sector privado, no haría Euskaltzaindia muchas cosas. Sepa Eroski que estamos muy reconocidos por su comprensión y por su amparo.

## **EUSKALTZAINDIA PRESENTA EL PROGRAMA JAGONET**

*José Ramón Zubimendi*

Euskaltzaindia (1919) es la Real Academia de la Lengua Vasca, la institución académica oficial que se cuida del euskera, atiende a las investigaciones sobre la lengua vasca, la tutela socialmente y establece las normas filológicas de su uso.

Euskaltzaindia goza del reconocimiento oficial y de un reconocimiento social generalizado entre la población del País. Todo ello ha propiciado una intensa actividad normativa conducente a la estandarización y modernización de la lengua en la socialidad vascófona, en especial desde 1968.

Euskaltzaindia ofrece en Internet ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)) diversos productos y servicios on-line, entre los que destacan la *Normativa Lingüística*, el *Nomenclátor de Apellidos Vascos*, el *Diccionario Unificado*, el *Catálogo de Publicaciones* y la *Antología del Atlas Lingüístico de Euskal Herria*.

Ahora Euskaltzaindia amplía su oferta de servicios on-line con la presentación del programa JAGONET, nombre que designa el conjunto de productos informáticos con el que la Real Academia de la Lengua Vasca va a gestionar las consultas lingüísticas de la ciudadanía en general, pero con especial atención a los sectores profesionales con mayor incidencia en la estandarización y modernización de la lengua (enseñantes, periodistas, traductores...).

JAGONET está diseñado como consultorio lingüístico progresivo e interactivo. Al acceder al programa, la persona que lo consulte se encontrará con un menú que, además de la *Normativa*, el *Nomenclátor* y el *Diccionario Unificado* antes mencionados, le permitirá acceder a la base de datos JAGONET, la cual recoge las respuestas que las pertinentes comisiones académicas vienen dando a la diversidad de consultas que tan frecuentemente llegan a Euskaltzaindia. Si se diera el caso de que la cuestión a consultar no se hallara en la base de datos, entonces la persona interesada podría formular directamente la consulta mediante correo electrónico. Dicha consulta será atendida con la mayor rapidez posible (sin detrimento del rigor académico) por los expertos que la Academia ha designado para ello. En lo referente a los temas a consultar, Euskaltzaindia quiere especificar que JAGONET no es ningún servicio de traducción, ni siquiera un servicio de consulta de terminología específica.

El objetivo que ha impulsado a la Real Academia de la Lengua Vasca a poner en marcha el programa JAGONET es doble: servicio a la ciudadanía y tutela de la calidad del idioma. El programa JAGONET es fruto del trabajo de la Sección Tutelar (*Jagon Saila*) de la Academia, sección presidida por Miren Azkarate (académica de número), y será gestionado por Joxe Ramon Zubimendi (escritor y académico correspondiente).

Dentro del programa JAGONET, Euskaltzaindia ha creado un foro de encuentro virtual (denominado "Plaza Barria"), foro que pretende ser lugar de encuentro de vascólogos y vascófilos, tribuna libre con tema único: la lengua vasca (y las múltiples vivencias, vicisitudes, esperanzas, inquietudes, proyectos, logros, críticas y opiniones que conlleva).

## **EUSKALTZAINDIAK JAGONET PROGRAMA AURKEZTEN DU**

*Jose Ramon Zubimendi*

Euskaltzaindia hainbat zerbitzu eskaintzen ari da jadanik Internet bidez ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)). Besteak beste, honako hauek: Hizkuntza Arauak, *Euskal Deituren Izendegia*, *Hiztegi Batua*, *Argitalpenen Katalogoa* eta *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren antologia*.

Orain, berriz, Euskaltzaindiak beste zerbitzu bat ere eskainiko du on-line; hain zuen ere, JAGONET programa: herritarren hizkuntza zalantzak argitzeko kontsulta-zerbitzu informatikoa.

JAGONET euskalgintzan egunero lanean dihardutenei laguntzeko sortu da nagusiki (irakasleei, kazetariei, itzultzaleei, administrazioko langileei...); izan ere, profesional horien lanak sekulako garrantzia baitu hizkuntzaren modernizazioan eta estandarizazioan.

JAGONET, datu-basea batez ere, hizkuntza mailako kontsulta interaktiboak egiteko prestatu da. Bertan, erabiltzaileak eskuragarri izango ditu orain arte jasotako galdera-erantzunak (berrehundik gora): alegia, euskaltzaleen galderak eta Euskaltzaindiak galdera horiei emandako erantzunak. Horrez gainera, erabiltzaileak jakin nahi duena datu-basean ageri ez bada (egundaino inork galdetu gabea delako edo), orduan erabiltzaileak posta elektroniko bidez galdezko aukera izango du. Euskaltzaindia bereziki ahaleginduko da ahalik eta azkarren erantzuten zuzeneko kontsulta horiek; hain zuen ere, horretarako berariaz izendatu ditu hainbat euskaltzain.

Hala ere, Euskaltzaindiak argi utzi nahi ditu ondorengo bi kontu garrantzitsu hauek:

- a) Zuzen eta egoki erantzun beharra lehenagokoa du Akademiak, noiz-nahi ere, azkar erantzun nahia baino.
- b) JAGONET ez da itzulpen-zerbitzua. Ez eta terminologiari buruzko galdera zehatzak egiteko kontsulta-zerbitzua ere.

JAGONETek helburu nagusi bi ditu: herritarrek zerbitzatu eta gure hizkuntzaren kalitatea bermatu. Euskaltzaindiko *Jagon* Sailak atera du aurrera JAGONET programa, Miren Azkarate (euskaltzain osoa) izanik sailburu, eta

Akademiak Joxe Ramon Zubimendi (idazlea eta euskaltzain urgazlea) izendatu du JAGONETen arduradun.

JAGONET programan, kontsulta-zerbitzuaz gain, elkargune birtuala ere eratu du Euskaltzaindiak, “Plaza Barria” izenekoa. Euskaltzaleen topagunea izango da “Plaza Barria”, eta euskara eta euskararen ingurukoak izango dira bertako mintzagai bakarrak.

Eroski kooperatibak dirulaguntza eman dio Euskaltzaindiari JAGONET egitasmoa aurrera atera ahal izateko.